



DEBAKO UDALA

BANDOA

Europako gainontzeko herrialdeetan hartzen ari diren neurriak jarraituz, gomendio hauek luzatzen dizkizuegu:

- 1.- Herriko denda, taberna, komertzioak eta gainontzeko bilgune itxiak (gazte-lokalak, elkarte gastronomikoak,...) itxita izateko gomendioa egiten dizuegu, janari denda, farmazia eta oinarrizko bizigaien dendak salbu.
- 2.- Ahal den heinean auto-isolamendu neurriak hartu, etxean geldituz. Pertsona helduei, batez ere, etxetik ez irteteko gomendioa egiten dizuegu, larrialdi kasuan izan ezik.

Herritarroi, bereziki, eskerrak eman nahi dizkizuegu pandemia honi aurre egiteko egiten ari zareten ahaleginagatik. Eta baita udal langile, zaintza eta garbiketa langile, osasun langile, ostalari, merkatari eta gainontzekoei ere.

Deban, 2020ko martxoaren 14an


GILEN GARCIA BOYRA
Debako alkatea

